



## Iñaki Etxezarraga musikariak "Etxe"

(Berriz, 1984-5-24) ezizena aukeratu zuen bere ibilbide musikari bidea emateko. Ezizena bazuen lehendik ere, 2005ean autokudeatutako maketa txukun batekin hasi zen. Etxe kantariaren ahotsak lekutxoak egin du. 2007an "Bidea eginez" (Oihuka) diskoa kaleratuko du. 2009an Baga-Bigarekin "Heldu eskutik" lana argitaratuko du. Beste bi urte pasatu dira eta, hirugarren diskoak, izugarritzko janzkera eraberritua dakarkigu. Etxe bakarlari. Etxe ahotsaren babesean, biluzik.

Etxe kantariak bere hirugarren lanari "Haize berri bat" izenburua jarri dio. Diskoa, Ondarroako Santos estudioan grabatu, nahastu eta masterizatu du Jon Olabariaga soinu teknikariak 2011ko urrian. Abesti eta hitz guztiak Etxerenak dira. Etxe kantariak ahotsa eta gitarra erritmikoak jo ditu. Iban Gurrutxagak gitarra konponketetaz arduratu da eta diskoaren ekoizpen artistikoaz Etxerekin batera. Mainer Otegi "Munduaren amaiera konkistatzen" abestian ahotsa sartu du.

Etxe kantariaren hirugarren diskoa "Haize berri bat" da. Bai, izenburuak arraoi du, haize berri bat da. Etxek orain arteko rock-talde egitura apurtu eta kanta-autorearen moldea hartuta itzuli da bere hirugarren diskoarekin. Kantuek hasieran duten euskarrira ekarri ditu Etxe musikariak; hots, gitarra soil baten laguntzarekin abestutako kantuak dira. Ahotsa gitarra bakarra duela lagun. Gitarra ahots bakarrez lagunduta. Kantuek ezin dute biluzi ego. Bai, "a capela", baina Etxe kantariak ezinbestekoa du bere ondoan gitarra erritmikoaren laguntza. Etxeri haize berrira egindako aldaketak zoriona ekarri dio berriro. Musikaren defentsa beste modu eraginkor batez eraman nahi du. Gutxieneko musika egiturak bete eta alaitu du. Ahotsak aurrekoan bezala segituko du. Kantuek melodiaren melankonia zoriontsuaren berotasuna dute eta horrek izugarritzko balioa du Etxerentzat. Iban Gurrutxaga musikariak egin dizkio gitarra konponketak eta hori bihurtu du bere makulu bakarra. "Haize berri bat" diskoak hamar abesti ditu, sei berri eta aurreko diskoetan sortutako singleei eginiko orrazketa biluzia eskainiko zaigu gainontzekoetan. Aconcaguan egon zen ETBko "El Conquistador de fin del mundo" saioarekin eta kantu bat egin zuen (Munduaren amaiera konkistatzen). Abesti guztiek Etxe intimoa eta goxoa dute.

**Etxe kantariaren ibilbidea aldatu egin da, lehengo tempo erdiko rock abestiek kantautorearen magalera etorri dira "Haize berri bat" diskoarekin. Haizearen norabideak zer dakarkigu? Laguntzarik izan duzu?**

Bidegurutze batera iritsi naiz eta, zuzen jarraitu beharrean, norabidea aldatu dut. Ez soilik musikalki, nire biziari ere haize berri bat eman diot. Disko honetarako aldaketa bat behar nuela sentitzen nuen. Orain arte eginiko guztia alde batera utzi eta zerotik hasi. Nire hastapenetara itzuli naiz eta, diskoa, akustikoa da erabat. Estilo lasaiago batekin nator. Disko honetarako ezinbestekoa izan da Iban Gurrutxaga gitarrajotzailearen lana. Nik kantuen egitura eta melodiak egin ditut eta berak gitarra konponketa guztiak egin ditu.

**Etxe musikariaren maitasunezko abesti dezente baziren, orain leunago datoz. Esan daiteke maitasunaren maitasunean aterpetu zarela?**

Azken bi urteetan gauza asko aldatu zaizkit bizitzan. Hortik dator batez ere diskoaren izena. Konposatzerako orduan hitz eta doinu alaiagoak atera zaizkit. Maitasun asko dago kantuetan baina ez da disko honetako gai nagusia. Kantu berriak idazterakoan izan ditudan sentimentuak oso desberdinak izan dira aurreko diskoekin alderatuz. Sei kantu berri daude eta bakoitzean egoera desberdin bat planteatu nahi izan dut, gai ezberdinak jorratuz.

**Etxe "Konkis" saioan izan da. Eta kantu batekin itzuli. Esperientzia fisikoak ekarri dizu inspirazioa?**

Abentura hori bizi izanak hausnarketa sakona eragin zidan. Nire bizitzak orokorrean aldaketa bat behar zuela nabaritu nuen. Patagoniatik itzultzean erabaki nuen bizitakoaren inguruan kantu bat idaztea. Mainerekin abestu nuen programaren finalaren egunean eta emaitzarekin oso pozik gelditu nintzen. Kantu akustikoa da eta hori ere disko berri hau kaleratzeko beste arrazoi bat izan da.

ritxi aizpuru (2011ko azaroaren 22a)

